

# ELKARBIZITZA PLANA 24-25

ELKARREKIN BIZI ETA IKASTEKO ESKOLA ZORIONTSU BAT

---



## **AURKIBIDEA**

1. Sarrera
2. Elkarbultzaren definizioa
3. Eskolako elkarbultzaren diagnostikoa
4. Helburu orokorrak
5. Egiturak
  - 5.1. Elkarbultzaren Batzordea
  - 5.2. BAT taldea
6. Jarduteko irizpideak eta ildo orokorrak
  - 6.1. Jarduteko irizpideak
  - 6.2. Jarduteko ildo orokorrak
7. Eskolako elkarbultzaren araudia
  - 7.1. Elkarbultzaren arau orokorrak
  - 7.2. Jangelako araudia
  - 7.3. Inguruarekiko harremana
  - 7.4. Gelako arauak
8. Jokabide desegokiaren zuzenketa
9. Eskolako elkarbultzari kalte larria eragiten dioten jokabideak- kode etikoa
10. Jarraipena eta ebaluazioa
11. Autoebaluazio tresna
12. Eranskinak

## 1. Sarrera

Munitibarko eskola, hezkuntza zentro bat dugu, bertan irakatsi, ikasi eta hezi egiteaz gain, pertsona talde ezberdinak bizikide gara: ikasleak, irakasleak, gurasoak, jangelako begiraleak, eta beste lankide batzuk.

Munitibarko eskola-komunitatea osatzen dugun pertsonen arteko harremanak zaintzea gustatzen zaigu, errespetua ardatz hartuta, harreman suspergarriak, adeitsuak eta osasuntsuak ditugu helburu.

Horretarako esku artean daukagun **Elkarbizitza Plana** sortu dugu, epe luzerako izango dena eta eskola komunitate osoaren inplikazioa ezinbestekoa izango dena, baita parte hartzea ere.

Behin hau jakinda, plan edo proiektu honetan eskola komunitateko partaide guztien arteko elkarbizitza hobea lortzeko ariketa bideratuak planifikatu, antolatu eta burutuko dira.

Elkarbizitzarako proiektu honek garrantzi handia du komunitateko kide guztien ongizatean, baita ikasleen garapen pertsonal eta sozialean eta haien errendimendu akademikoan ere.

Esandakoaz jakitun, orain arte ere hainbat ekintza dira burutu ditugunak. Alde batetik, lehen hezkuntzan **tutoretza planak** (1.go eranskina) burutu ditugu eta ikasturte osoan elkarbizitza positiborako ekintzak egiten ditugu, bertan *autoestimua*, *autokontzeptua*, *errespetua*, *praktika onak*... bezalako balioak astero landuz.

Horrez gain, mankomunitateak antolatuta **“Gatazken kudeaketa”** tailerra ematen etorri da bertako hezitzailea bai ikasleengana baita irakasleengana ere mankomunitateko psikologoa. Eskola komunitate ikuspegitik lan egin behar denez, tailer berdina jasotzeko aukera izan dute familiek eta jantokiko begiraleak ere.

## 2. Elkarbizitzaren definizioa

Eskola-erakundeetan sortzen den harreman-giroa da. Esan dezakegu denbora/leku batean (eskola) ideia edota helburu batekin (heziketa eta ikasleen prestakuntza) garatzen den gizarte-harremanen sare bat dela, eta bertan parte hartzen duten eragileei (irakasleak, ikasleak, familiak, irakasleak ez diren langileak) dei egiten die lankidetzan aritzeko gai izan daitezen; hau da, batera lan egin dezaten eta elkarri lagun diezaizketen kideen arteko harremanak eta loturak sortzen.

“Elkarbizitza elkarrekin ondo bizitzea da. Elkarri aktiboki laguntzea, errespetuz, enpatia erabiliz eta arazoak bideratzeko orduan berba eginez.”

### **3. Eskolako elkarbizitzaren diagnostikoa**

Eskolan honako puntu hauek eramaten dira aurrera:

#### **A. Hezkuntza-politika:**

- Ikastetxeko berrikuntza prozesuak bideratzen dituen Zuzendaritza Talde bat sortzearen alde lan egiten da.
- Ikasleen heldutasun pertsonala lortzea, elkarbizitza positiboa eta ekitatea dira gure ikastetxearen hezkuntza-ardatzak.
- Ikastetxeko antolakuntza eta kudeaketaren inklusio eta heterogenetasun-irizpideak aplikatu ohi dira.
- Autoanalisisa eta ebaluazioaren bitartez gure ikastetxean hobekuntza-prozesua sustatzen ari da.
- Ikasleengan portaera prosozialak sustatzen dira.

#### **B. Elkarbizitzaren antolakuntza eta kudeaketa**

- Harremanak pertsona ororen eskubide eta betebeharretan oinarritzen dira.
- Gatazkaren aurrean jokaera prebentiboak, bat-bateko esku-hartze jokaerak baino ugariagoak dira.
- Arauak malgutasunez eta zuzentasunez aplikatzen ditugu.
- Gure AJA hezitzailea eta inklusiboa da.
- Jende-arteko ezagutza indartzeko eta giro atsegina sustatzeko jarduerak (familien parte-hartzea, talde elkarreagileak, dinamika kooperatiboak, hitzaldiak, etab.) antolatzen dira.
- Ikastetxea bizitza eta elkarbizitza onuragarriko eremu segurua eta atsegina da.
- Gatazkei modu eraikitzaile batez egiten zaie aurre, elkarriketa, enpatia eta asertibitatea erabiliz.
- Berdinen arteko laguntza, komunikazioa eta bitartekaritza ikastetxean elkarbizitza positiborako ohizko estrategiak dira.
- Ikastetxeak elkarbizitza planaren garapenerako errekurtsu pertsonal eta materialak erabiltzen ditu.

- Ikas komunitateko kide berriei harrera egitean talde kohesiorako dinamikak proposatzen dira.
- Gure ikastetxean autoerregulazioa eta elkarrekiko erantzukizuna sustatzen dira elkarbizitza positiboaren eraikuntzarako.
- Gatazka jende arteko harremanetan errealitate bat dela onartzen da eta pertsonaren zein taldearen garapenari begira elementu baliogarri bat bezala onartzen da.
- Elkarrizketa, albokoak onartzea, baita bere ezberdintasunak ere, eta akordioen bilaketa dira gure elkarbizitzan ohizko estrategiak. Egoera gatazkatsuetan, hasteko, gatazkan inplikaturako guztiak entzun egingo dira, biktimei babesa emango zaie eta modu neutral batean jokatu dugu. Honetarako adostokia eta bitartekariak formazioa jasotzen dute.

### **C. Partaidetza**

- Ikastetxean komunikazioa erraza da, gardentasuna eta elkarrizketarako hurbiltasuna nagusi dira.
- Ikastetxeko jardueretan adostasunez eta koherentziaz jokatu dugu.
- Isiltasun legea apurtuko dugu salatarien konnotazio negatiboa galduz.

### **D. Emozioak, sentimenduak eta identitatea:**

- Elkarren arteko laguntza gure ikastetxeko harremanen ezaugarria da.
- Aukerak abiapuntu, oztopoak gaindituz eta akatsetatik ikasiz aurrera egiten ari garela uste da.
- Pertsona bakoitzak bere esku dagoenean badu aukeratzeko eta erabakitzekeko posibilitatea.
- Gure ikastetxeko lan-giroan optimismoa, ikasteko aukerak eta ikasketetan arrakasta izateko posibilitateak nagusi dira.
- Ikas komunitateko kideen arteko giro egokia zaintzen da.

### **E. Irakatsi eta ikasteko prozesuak:**

- Curriculumaren garapenean malgutasunak ikasketa sozio-emozionala eta elkarbizitza positiboaren garapena

ahalbidetzen ditu.

- Programatzen diren edukiek eta jarduerak ikasleek interesak eta beharrak kontuan hartzen dituzte, beraiekin alde aurretik motibazioa landu delarik.
- Ikasleek ikasketa-jardueren aukeraketan eta diseinuan parte hartzen dute eta hauen bitartez lortu nahi diren helburuak ezagutzen dituzte.
- Informazio-tratamendu eta iturri ezberdinekin lan egitea sustatzen da.
- Guztien ikasketa lortzeko eta harremanak hobetzeko lan kooperatiboa edota interaktiboa sustatzen da.
- Banakako tutoretzak antolatzen dira ikasleek elkarbizitza eta egoera emozionala landu ahal izateko.

#### **F. Irakaslan-estiloa:**

- Talde-garapena zaintzen da, konpartitzea eta kooperatzea sustatzen da.
- Hezkuntza-harremanetan inplikaturiko pertsonen artean konfiantza dago eta honek segurtasuna ematen du.
- Pertsonetikiko balorazioa eta errekonozimendua orokortuak daude.
- Profesionaltasuna eta inplikazioa, gogo bizia, ikasteko eta erakusteko konpromisoak ongizatea sortarazten dute komunitatearentzat.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztiekiko itxaropen altuak mantentzen dira.

#### **4. Helburu orokorrak**

Elkarbizitza plan honetan, ikastetxeko elkarbizitza-giroarekin loturiko IHPko helburuak jasotzen dira eta gure ikasleek beren garapen pertsonal eta sozialean lortzea nahi ditugun balioak. Beraz, Elkarbizitza proiektua eskolako printzipioak gauzatzeko bide aproposa dela baloratzen dugu. Printzipio hauek gure hezkuntza proiektuan islatzen dira:

- Eskola plurala eta inklusiboa aniztasuna integratzen duena.
- Eskola demokratikoa eta parte hartzailea.

- Eskola hezitzailea eta berriztatzailea.
- Sormen gaitasuna eta izpiritu kritikoaren eskola bultzatzailea.
- Euskal hizkuntza eta kultura sustatzen duen eskola.
- Baloreetan oinarrituko eskola Heziketa integrala sustatzen duena.

Ondoren helburuen sailkapena aurkezten da:

- Eskolan *elkarbizitza* hobetzea.
- Hezkuntza komunitateko partaide guztien artean harmonia eta begirune giro bat sortzea.
- Erantzukizunak hartuz, eskolako partaide gareneko ideia hartzea; bai guraso, ikasle eta irakasleok.
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea (neska eta mutilak). Hezkidetza Plana (2. eranskina).
- Gatazken ebazpen baketsua bultzatzea.
- Berdinen arteko mehatxu eta jazarpeni bat-bateko erantzuna ematea.
- Gatazkek aurreikusi eta harremanen hobekuntzan hezte.

## 5. Egiturak

### 5.1. Elkarbizitza Batzordea eta Behatokia

Ikastetxe honetan elkarbizitzaren kudeaketarako lagungarri izango den egitura bat sortu da: Elkarbizitza Batzordea. Honako puntu hauek eramango dira aurrera:

- Elkarbizitza batzordearen osaketa: Eskola txikia izanik Elkarbizitzarako Batzordea 2+2 taldea da (2 guraso (OOGean ere kide dena) + 2 irakasle, hauetako bat, gutxienez zuzendaritzako kidea)
- Batzorde berbera arituko da Elkarbizitzako Behatoki gisa gure eskolaren kasuan eta Hezkuntza Sailak ezarritako protokoloa jarraituko dugu.
- Batzordearen eginkizun banaketa:
  - Batzordeburua: Zuzendaritzako kidea.
  - Idazkaria: guraso bat.
  - Batzordekideak: Bi guraso, hauetako bat gutxienez OOGean ere kide dena eta bi irakasle, hauetako bat gutxienez zuzendaritzako kide ere badena.
- Elkarbizitza batzordearen funtzioak:
  - Eskolako elkarbizitza funtzionamendu onarengatik begiratu.

o\_\_Eskolako elkarbizitzaren araudia berraztertu eta gaurkotu, hezkuntza komunitate partaide guztien partaidetza bermatuz.

o\_\_Arrisku egoeren aurrean prebentzio lanak ikustatu eta ikastetxean dagoen araudiaren betetzea bermatu.

o\_\_Eskolako ikasleriarengan eman daitezken jarrera desegokiak aztertu, elkarbizitzaren aurkakoak edota elkarbizitza hau eragozten dituztenak, hain zuzen ere, jarrera hauek hobetzeko ekintzak proposatuz.

## **5.2. BAT taldea**

Bizikasi ekimenean, lehendabiziko hezkuntzako esku-hartzean, ikastetxeetan probentziotik prebentziorako bideari ekiteko bitartekoak dira nagusitzen diren elementuak. Jazarpena ekiditeko erarik eraginkorrena prebentzioa dela jakinik, ezinbestekoa da ikastetxeen eskuetan jartzea bizikidetza positiboa eraikitzen laguntzen duten egiturak, antolatzeko neurriak, metodologia-hautuak, curriculum-garapenak, estrategiak eta tresnak. Horixe adierazi nahi da probentzioarekin.

Esaterako, antolaketari dagokionez, aipatzekoak dira, besteak beste, haien arteko harremanen kalitatea sustatzeko bitartekoak ezartzea, eta haiek duten ongizate emozionalaren maila ezagutzeko komunikazio-kanal seguruak izatea. Metodologiaren aldetik, lankidetzan oinarritutako eskaintza metodologikoen aldeko hautua egitea. Curriculumaren eremuan, egiteko nagusia izango da bizikidetza eraikitzearen alde eta eskusioari eta jazarpenari aurka egiteko jarduerak garatzea, eta estrategiei erreparatuz balizko jazarpen-egoerak detektatzeko eta ebaluatzeko tresnak ezagutzea eta esku-hartzea era egokian kudeatzea.

Egiturei dagokienez, Bizikasi ekimenak ikastetxe bakoitzean BAT (Bullyingaren Aurkako Taldea) egitura sortzea ebazten du, hiru kidek osatua: ikastetxeko zuzendariak, ikasketa buruak eta aholkulariak. Talde horrek koordinatuko du jazarpen-kasuak ebazteko prozesua, eta beronek gidatuko ditu, Elkarbizitza Behatokian jasotako iradokizunak aintzat hartuta, ikastetxean bizikidetza positiboaren esparruan garatu beharreko ekintzak.

Egiteko horretan jarduteko, ezinbestekoa da BAT taldearen prestakuntza sendoa bermatzea. Prestakuntza horretan, bizikidetza positiboaren eraikuntzan esanguratsuak diren alderdiei, eskola-jazarpenaren kontzeptualizazioari eta balizko kasuak ebazteko aldagaiei erreparatuko zaie.

## **6. Jarduteko irizpideak eta ildo orokorrak**

## **6.1. Jarduteko irizpide orokorrak**

Hezkuntza-komunitate osoak kontuan izango ditu jarduteko irizpide hauek:

- Elkarbizitza positiboren sustapena esparru guztietan eta curriculumeko arlo eta ikasgai guztietan egingo da, eta kontuan izango da elkarbizitzarako gaitasunaren ebaluazioan eta ondorioz oinarritzko gaitasunen garapen-maila neurtzean, ikasleek nola kudeatzen dituzten gatazkak eta proposaturiko elkarbizitza-balioen arabera jokatzeko duten.
- Pertsonen arteko adimenaren, trebetasun sozial eta emozionalen, eta balio etikoen garapena ikastetxeko profesionalen ardura izango da, familien lankidetzarekin.
- Partaidetza izango da elkarbizitza-araudiari buruzko erabakiak hartzeko lehentasunezko bidea.
- Arauak eta erabakiak denon eskubideen eta ongizatearen bermea sustatzen duten elementuak izango dira, eta hala ulertu eta partekatuko ditu komunitate osoak.
- Hezkuntza komunitateko pertsona heldu guztiek, garrantzizko egoera liskartsuren bat ezagutuz gero, esku hartu edota haren berri eman beharko diete arduradunei.
- Gatazkak konpontzeko lehentasuna emango zaie adiskidetzeko eta kalteak konpontzeko prozedurei.
- Gatazkak kudeatzeko beti aztertu beharko dira lehenik arrazoiak, eta, hala badagokio, zigorraren eragin berrezitzailea. Hartzen diren neurriek helburu berrezitzailea izan beharko dute.
- Adiskidetzea eta kalteak konpontzea izango dira lehentasunezko prozedurak.
- Jazarpen-kasuen eta edonolako indarkeriaren aurrean tolerantziarik ez.

## **6.2. Jarduteko ildo orokorrak**

Sistematikoki aztertuko dugu ea irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintzak, metodologiak, ebaluazio-prozesuek, irakasleen arteko koordinazioak eta familiekiko koordinazioak sustatu eta laguntzen dieten gure ikasleei arrakasta lortzen.

Prestakuntza antolatuko da prozesu horien eraginkortasuna areagotzeko eta eskola-arrakastarako plan bat abiaraziko da, zeinak ikasle guztien motibazioa sustatuko duen ikasketa, bere gaitasunen aprobeitxamendua eta hezkuntza-arrakasta lortze aldera, autoestimua eta ikasteko atsegina areagotu eta frustrazioa eta porrotaren sententzioa saihestuz.

Garrantzi berezia ematen diogu gatazkei aurrea hartzeari. Gatazka ez da zerbait negatiboa eta ekidin beharrekotzat hartzen. Elkarbizitzak berezkoa du gatazka; beraz, irakasleriari eta eskola-komunitateko kideei baliabideak ematen dizkiegu gatazkak modu eraikitzailean konpontzeko. Tutoretza-jarduerako planaren diseinu eta garapenean honako baliabide hauek aipatuko dira: elkar ezagutzeko baliabideak, elkarrenganako estimua lantzeko, ekimenak irmoki entzun eta proposatzeko, elkarlanerako, erabaki bateratuak hartzeko, gatazkei modu bateratuan aurre egiteko.

## **7. Eskolako elkarbizitza araudia**

Eskolako arauak eta hauek ez betetzeak dituen ondorioak guztion artean adostu dira.

[https://drive.google.com/file/d/1Jc9kC2P5O7h5gGmQD5iJntpFBwsaj37\\_/view?usp=sharing](https://drive.google.com/file/d/1Jc9kC2P5O7h5gGmQD5iJntpFBwsaj37_/view?usp=sharing)

### **7.1. Elkarbizitza arau orokorrak**

- Funtzionamendu egokiaren oinarria, elkarrekiko errespetua da.
- Adierazpen askatasuna errespetatu behar da.
- Sexu, arraza, erlijio, kanpoko itxura, ... arrazoiengatik inor ez baztertzea.
- Eskolako instalazioak zainduko dira.
- Eskolako komunitatea osatzen dugunon artean (irakasle, ikasle, guraso, irakasle ez diren langileak, ...) gizabide eta begirunez zuzenduko gara; agurtu, doinu egokia eta berbategi zuzena erabiliz, besteei min eman diezaieketen irainak eta modu txarrak baztertuz, elkarri eskerrak emanez, gauzak begirunez eskatuz, ... ikasleentzat eredu on bat izanez.
- Guraso zein irakasleriak elkarrizketaren bidez ebatziko du gatazken konponketa eta edozein zalantza, ardua edota egonezina, batzordeburu edota batzordekide den irakaslearekin kontsultatu.
- Parkea, frontoia eta plaza, eskolako eremuak dira. Eskola orduetan zein eskolak antolatutako eginkizunetan, zuzendutako arauak errespetatuko dira.

### **7.2. Jangelako araudia**

- Jangelan sartu aurretik, ikasle guztiek eskuak garbituko dituzte.

- Bere neurrian, denetik jan behar da.
- Mahai-tresnak ez dira jolasteko edo zarata egiteko erabiliko.
- Elkarri janari puskek botatzea galarazita dago.
- Jangelako begiraleak ezarritako baldintzak errespetatuko dira.

### **7.3. Inguruarekiko harremana**

- Guztion ardura izango da eskolako instalazioak, patio eremua, zein materialak egoera onean mantentzea.
- Matxura bat izanez gero, irakasleari jakinarazi beharko zaio, zuzendaritzako partaideak jakinaren gainean egon daitezten.
- Besteen espazioa eta jolasa errespetatu beharko da.
- Gelako ordena, bakoitzaren eta gainerakoen aprobetxamendurako ezinbesteko baldintza da. Horregatik, ikasle bakoitzak lanarekiko zein guztion arretarekiko barruko giro egokia sortu beharko du.
- Etxetik ekartzen diren jostailu zein materialak galdu edo apurtuz gero, eskolak ez du erantzunkizunik izango; duen balio ekonomikoa izanda ere. Horregatik, komenigarria da jostailurik ez ekartzea (ahal den neurrian).
- Eskola ordutegi barruan debekatuta dago mugikorra erabiltzea. Behar izanez gero (beranduago erabiltzeko), tutoreari honen berri emango zaio eta honek gordeko du ateratzeko ordua iritsi arte.

### **7.4. Gelako arauak**

- Gelak txukun eta garbi mantenduko ditugu.
- Materiala zainduko dugu.
- Gelatik irten aurretik, denon artean, txukun utziko ditugu.
- Gelan ematen diren azalpenak, lasai entzungo ditugu.
- Elkar errespetatuko dugu.
- Gerta daitezkeen istiluak, lasai hitz eginez konponduko ditugu.
- Hitz mingarri zein itsusiak saihestuko ditugu.
- Besteei laguntza eskainiko diegu eta euren laguntza onartuko dugu.
- Besteak diren bezala onartuko ditugu eta ez dugu euren hutsegiteez barrerik egingo.
- Gelako giroa ona izan dadin lagunduko dugu.
- Hain gustuko ez ditugun adiskideak, ez ditugu goitizenez deituko ala irainduko.
- Gelako arauak eta guztion artean adostutako erabakiak onartu eta errespetatuko ditugu.

- Gainerakoek hitz egiten dutenean errespetuz entzungo diegu.
- Hitz egiterakoan doinu egokia erabiliko dugu eta txandak errespetatuko ditugu.

## **8. Jokabide desegokien zuzenketa**

Jokabide desegokien hausnarketa eta bere ondorioak: hausnarketa honetan ikasleari bere jarrera ulertarazteko urrats batzuk jarraituko dira; inplikatuaren sentimenduak adieraztea, ahots doinua egoki erabiltzea, etab.

Hauek dira jarraitu behar diren pausoak zuzendu beharreko jokaera baten aurrean aurkitzen garenean:

1. Portaera gelditu.
2. Elkarrekin kausak aztertu.
3. Lagundu ondorioak aztertzen eta kalteak zehazten, bai materialak bai pertsonalak, besteentzat eta bere buruarentzat.
4. Ikasleari lagundu zein den bete ez duen araua identifikatzen.
5. Lagundu irtenbidea proposatzen.

Arazoa mantentzen bada:

1. Familia informatu eta beraien laguntza eskatu (beharrezkoa balitz).
2. Inplikaturik dauden parte guztien konpromezua zehaztu, errealia eta egingarria dela ziurtatuz. Oso garrantzitsua da konpromezuak gertatutakoarekin lotura izatea.
3. Ikasleari hurrengo batean nola jokatu duen azaltzeko eskatu.
4. Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
5. Jokabide eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
6. Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zeregin bat egitea.
7. Beharrezkoa izanez gero, zuzendaritza taldeko edozein lankideren aurrean aurkeztu.
8. Baloreetan oinarritutako hezkuntza, eta eman diren jokabide desegokiak bereziki elkarbizitzako saioetan landu.
9. Ikasleak egindako jokabide desegoki guztiak idatziz jasoko dira.

**ZUZENDARIAK AURREKO PUNTUAN EZARRITAKO NEURRIEZ GAIN HONAKO HAUEK ERE ERABIL DITZAKE**

1. Ikaslea taldez aldatzea, aldi baterako edo behin betiko. Aukera hau, tutoreak, ikasketa buruak eta aholkulariak erabakiko dute. Aldaketa erabakitzen bada, gurasoei berri emango zaie.
2. Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak; beti ere, hiru hilabetez gehienez ere. Lan edo zeregin horiek lotura izan behar dute ikasleak elkarbizitzaren aurka izandako jokabidearekin.
3. Gai bateko edo batzuetako eskoletara joateko eskubidea eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko nahiz zerbitzuak jasotzeko eskubidea etetea, harik eta ikaslearen gurasoekin edo lege ordezkariekin elkarrizketa bat egiten den arte. Eskubide etendura horrek ezingo du iraun hiru egun baino gehiago.
4. Jangela zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.
5. Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola egunetik hogeira bitartean.

## **9. Eskolako elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideak- kode etikoa**

- Hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen laidogarri edo iraingarriak, laidu edo irain horiek edozein modutan adierazten direla ere: ahoz, idazki bidez edota baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.
- Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.
- Eskolako hezkuntza-komunitateko kideak euren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea.

- Nahita kalteak eragitea eskolako instalazioetan edo ondasunetan, eskolako langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei.
- Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea; diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaioterria, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste edozein egoera pertsonal, ekonomiko edota sozial.
- Jazarpen sexista, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako ezarritako definizioa aintzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea eta horren sexua dela eta hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.
- Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.
- Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, beti ere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.
- Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, beti ere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideena.

## 10. Planifikazioa eta jarraipena

<b>EKINTZAK</b>	<b>ARDURADUNA</b>	<b>BALIABIDEAK</b>	<b>DENBORALIZAZIOA</b>	<b>LORPEN ADIERAZLEAK</b> Nola jakingo dugu lortu dugun ala ez?	<b>EBALUAZIOA</b> Nork? Noiz? Nola?
Bizikidetza mintegietako materiala	Aholkularia	Mintegietan eskainitako material desberdina	Ikasturtean zehar	Mintegietan proposatutako materiala erabili da.	- Tutoreak - Behaketaren bitartez.
Gelako, patioko eta jantokiko arauak zehaztu	Tutoreak Ikasleak	Elkarbizitza Planean Adostutako arauak	Ikasturte hasieran	Arautegia egin da	-Irakasleok. -Ikasturtearen bukaeran. -Arautegia egin den edo ez baieztatuz.
Banakako tutoretzak	Tutorea	Txantiloia	15erik behin	Banakako tutoretzak egin dira	- Tutoreak -
"Ni eta eskola" galdetegia	Aholkularia Tutorea	Galdetegia	Ikasturte hasieran eta ikasturte amaieran	Galdetegia egin da	- Aholkulariak. - Ikasle bakoitzaren emaitzak atera dira.
Arrisku mapa	Aholkularia Tutorea	Eskolako mapa Gometxak	2. hiruhilekoan	Eskolako mapan, gatazkak non sortzen	- Tutoreak eta aholkularia. - Behaketa

				diren identifikatu ditzute.	
Tutoretza saioetan gatazken inguruan hitz egin.	Tutorea		Ikasturtean zehar	Gatazkek egon direnean, hauen inguruan hitz egin da konponbidea emanaz.	- Tutoreak - Behaketa
Elkarbizitza programa, gatazken konponbidea (mankomunitatea)	Mankomunitateko hezitzailea	Power Pointa	Otsailean, 3 saio	Gatazken konponbidearen inguruko tailerra burutu dute.	Tailerraren bukaerako ebaluazioa
Jolas kooperatiboak	Heziketa fisikoko irakaslea	Jolasak egiteko material ezberdina	Ikasturtean zehar (ostegunetan)	Jolasak egin dituzte.	Patioan egoten diren irakasleak

## 9. Autoebaluazio tresna

Eskolan bizikidetza positiboa eraikitzea izango da tresna honen helburua. Autoebaluaziorako eta hobekuntzarako tresna da, hezgizarria dena. Bi dimentsiotan dago banatuta. Lehenengo dimentsioa, 1.mailako esku-hartzea edo probentzioari dagokio; bigarren dimentsioa, Eskola Jazarpenaren eta Jokabide Suizidaren eskaeren aurrean.

Munitibar eskolari dagokionez, hauek dira lortutako emaitzak eta hobekuntzarako proposamenak:

- 1. Dimentsioa

<https://drive.google.com/file/d/1xGJvM5fZBVdH9KloluWAgIFwY3Tu9Xd8/view?usp=sharing>

- 2. Dimentsioa

[https://drive.google.com/file/d/1CzRnp6185AKW51-CbbRwMOH4duRLXtzM/view?usp=drive\\_link](https://drive.google.com/file/d/1CzRnp6185AKW51-CbbRwMOH4duRLXtzM/view?usp=drive_link)

